

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Kiroldegiko langileak kontratatzeko lan-poltsa handitzea

Udal honek, 2025eko urriaren 29an egindako tokiko gobernu-batzarrean, kiroldegiko langileak aldi baterako kontratatzeko lan-poltsa bat oposizio-lehiaketa bidez zabaltzeko oinarriak onartu zituen.

Deialdiaren oinarri arautzaileak erantsi dira:

Mantentze-lanetako langileak aldi baterako kontratatzeko lan-poltsa handitzeko deialdia arautuko duten oinarriak

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da aldi baterako zerbitzuetarako langileak hautatzea, kiroldegiko peoien lan-poltsa handituz.

Sailkapen-taldea: lanbide-taldeak.

Funtzioak:

- Bere kargura dauden instalazioen kontrola egitea.
- Bere kargura dauden eraikin eta instalazio guztiak irekitzea eta ixtea.
- Kiroldegia, igerileku-gunea eta erantsitako eremuak garbitzea, eta kanpoko eremuak garbitzea.
- Instalazioetan mantentze-lan txikiak edo oinarrizko konponketak egitea: muskulazio-makinak koipeztatzea, eguneroko legionella kontrolatzea, inskripzioak egitea, erabilerak erregistratzea, igerilekuak irekitzeko aldian autokontrol-lanak egitea, etab.
- Instalazioak zaintzea.
- Instalazioak ireki eta itxi.
- Instalazioetarako sarbidea kontrolatzea.
- Jendeari arreta eta informazioa ematea, aurrez aurre, telematikoki eta telefonoz.
- Materiala lekualdatzen eta/edo altzariak eta beste elementu batzuk birkokatzen laguntzea.
- Lan osagarriak egitea (fotokopiak, materiala birjartzea, terminal informatikoak erabiltzea, etab.).
- “Igerilekuetako langile” lanpostuaren berezko eginkizunak betetzea, igerilekuak irekitzeko denboraldian, nagusiek hala eskatzen diotenean.
- Kirol-eremuko jendeari harrera egiteaz eta arreta emateaz arduratzea: erabiltzaileei eta, oro har, jendeari arreta, informazioa eta orientazioa ematea, sarrerak saltzea, ikastaroetan eta jardueretan izena ematea/matrikulatzea, eskuragarri dauden espazioak eta/edo materialak erreserbatzea eta alokatzea, erreklamazioak egitea, etab.
- Instalazioan edo zerbitzuan dagoen edozein enpresa, elkarte edo langileren jarduera zaintzea eta erraztea, sor daitezkeen ezustekoak eta zailtasunak modu aktiboan konpontzen saiatuz.

— Kirol-eremuan eta/edo Kirol Zerbitzuak kanpoan edo beste ekipamendu batzuetan antolatzen dituen ekitaldietan jarduten duten artistei eta konpainiei arreta ematea.

— Kirol-zerbitzutik egiten diren jarduera eta ikuskizun publikoetara sartzeko kontrola egitea, instalazioen barruan eta kanpoan: egokitzea, sarrerak biltzea, edukiera kontrolatzea, etab., eta zerbitzu teknikoak ezartzen dituen datu guztiak jasotzea.

— Hierarkian gorago daudenek esleitzen dioten antzeko beste edozein zeregin egitea.

2. Izangaiei baldintzak

1. Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) 16 urte beteta izatea.

b) Europar Batasuneko estaturen bateko herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.

Era berean, Europar Batasuneko estatueta nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanik ere beren kontura bizi badira.

Era berean, aurreko paragrafoetan sartzen ez diren eta Espainiako estatuan bizi diren atzerri-tarrek ere parte hartu ahal izango dute. Hautatuak izanez gero, kontratuaren xede den jarduera egiteko administrazio-baimena dutela egiaztatu beharko dute, jarduera formalizatu aurretik.

c) Titulazioa: lehen mailako ikasketen ziurtagiria edo baliokidea.

d) Euskara jakitea: egiaztatutako 2. hizkuntza-eskakizuna edo, egiaztatuta ez badago, eska-tzaileak probak egin ahal izango ditu eta, ondoren, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ahal izango du lan-poltsan sartzeko.

e) Funtzioa normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea.

f) Diziplina-espediente bidez edozein herri-administrazioaren zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judicial bidez enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko edo lan-kontratuko langileen kasuan betetzen zituzten antzeko eginkizunak betetzeko erabateko desgaitasuna edo desgaitasun berezia ez izatea. Beste estatu bateko he-rritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan enplegu publikora iristea eragozten duen diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.

g) Administrazio publikoko langile izateko ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kau-saren batean sartuta ez egotea.

2. Baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko dira. Betekizun horiek prozesu osoan eduki beharko dira.

Izangaiek jatorrizko agiriaren edo fotokopia konpultsatuen bidez egiaztatuko dute, epaima-haiak ezarritako epean, deialdiko baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzen dituztela. Hizkuntza-eskakizuna oinarri hauetan ezarritako moduan egiaztatuko da.

3. Lan-baldintzak

Lan-kontratuko langileen lanpostuak dira, eta lanpostuen zerrendan eta Alegria-Dulantziko Udaleko plantillan ezarritako ordainsariak dituzte.

Ordutegia astelehenetik igandera izango da (biak barne).

4. Eskabideak eta onarpena

4.1. Lan-poltsa handitzeko deialdian parte hartzeko eskabideak Alegria-Dulantziko alkateari zuzenduko zaizkio eta udal horretako erregistro orokorrean aurkeztuko dira, 9:00etatik 14:00etara.

Instantziak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako bideak eta bitartekoak erabil daitezke.

4.2. Lehenengo deialdiaren eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Hurrengo deialdietarako, behar bezala adieraziko da.

4.3. Oinarrien I. eranskinean transkribatutako ereduaren arabera egingo da eskabidea, eta eskatutako titulazioaren fotokopia erantsiko zaio.

4.4. Gainera, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan aurreikusitako titulazioaren batekin (297/2010 Dekretua, Euskararen Ezagutza Egiaztatzen duten Tituluak eta Ziurtagiriak Baliokidetzeari eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

4.5. Halaber, eskabidearekin batera, alegatutako merezimenduen frogagiriak aurkeztuko dira. Eskabideak aurkezteko epean aurkeztu eta behar bezala egiaztatu ez diren merezimenduak ez dira inola ere baloratuko. Administrazio Publikoan egindako zerbitzuak, langileak kudeatzeko dagokion zerbitzuan berariaz aitortuta badaude, ez dira egiaztatu beharko.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, gobernu-batzordeak onartu eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du.

Ebazpen hori jendaurrean jarriko da eta udaletxeko iragarki-oholean eta <https://www.alegria-dulantzi.eus> web-orrian jarriko da.

Zerrenda horietan bazterturik agertzen diren izangaiek bost eguneko epea izango dute bazterketaren aurka erreklamatzeko eta hori eragin duten akatsak edo agiriak zuzentzeko.

Erreklamazio-epe hori igarotakoan, ebazpena onartu eta izangaiek baztertu dituen agintaritzak ebatziko ditu aurkeztutako erreklamazioak.

5. Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailea honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Vanessa Domínguez Casal.

Ordezkoa: Marta Ramírez Gómez.

Batzordekideak: Juan José Alburquerque Gajate.

Ordezkoa: María Teresa Martínez de Marañón Noriaga.

Ordezkoa: Patricia Álvarez Lavín.

Ordezkoa: Pedro María Sáez de Maturana Gallardo.

Idazkaria: Inmaculada Galerón Iglesias.

Ordezkoa: Fernando Alonso Puente.

Nolanahi ere, epaimahaiak bere lanetan aholkulariak sartzeari erabaki ahal izango du hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako.

Epaimahaia osatzen duten pertsonak ez dute esku hartuko, eta udaleko alkateari jakinaraziko diote Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, eta hautagaiek errefusatu egin ahal izango dituzte, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoren bat gertatzen denean.

Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, azken horrek ez baitu botorik izango.

Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketa gertatuz gero, presidente diharduenaren botoak ebatziko du.

Epaimahaia, gainera, ordezkoei osatuko dute.

Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, kideen erdiak baino gehiago, titularrak zein ordezkoak, bertaratu gabe.

6. Hautaketa-prozesuaren hasiera eta garapena

Oposizioaren ariketa bakarra hasteko tokia eta eguna udaletxeko iragarki-taulan eta www.alegria-dulantzi.eus web-orrian argitaratuko dira, onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrenda onartzen duen ebazpenarekin batera.

Epaimahaiak argitaratuko ditu oposizioi gainerako ariketen ondorengo iragarkiak, udaletxeko iragarki-taulan eta www.alegria-dulantzi.eus web orrian.

Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketa bakoitzerako.

Kanpoan geratuko dira bertan parte hartzen ez dutenak.

Prozeduraren edozein unetan epaimahaiak hautagaien batek deialdian eskatutako baldintzak betetzen ez dituela jakingo balu, deialditik kanpo geratuko litzateke, interesdunari entzun ondoren, eta egun berean horren berri emango zaio hautaketa-prozesua deitu duen agintariari.

7. Hautaketa-prozesua

Izangaiek hautatzeko prozedurak fase hau izango du:

Oposizio-fasea:

Lehenengo ariketa.- Nahitaezkoa eta baztertuailea.

Lanpostuaren funtzioei buruzko erantzun alternatiboak dituzten galdera batzuei idatziz erantzutean datza.

Otik 10era puntuatuko da, eta 5 puntu eskatuko dira gainditzeko.

Bigarren ariketa.- Nahitaezkoa eta baztertuailea.

Epaimahaiak lanpostuarekin lotuta planteatzen dituen hiru kasu praktiko epaimahaiaren aurrean ebaztea izango da.

Oposizioaren kalifikazioak hartzeko, epaimahaiko kideek emandako puntuazioak batuko dira, eta guztizkoa zati epaimahaiko kideen kopurua egingo da; zatidura bakoitzaren behin betiko kalifikazioa izango da.

Otik 10era puntuatuko da, eta 5 puntu eskatuko dira gainditzeko.

Ariketa bakoitzeko puntuazioak erabakitzen diren egunean bertan argitaratuko dira.

Hirugarren ariketa.- Euskara egiaztatzea.

Ez da hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketarik egingo.

Euskararen ezagutza eskabidean adierazi beharko da. Egun horretan hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez badu, eskatzaileak hautaketa-prozesuaren amaieran egiaztatu ahal izango du, lan-poltsan sartzeko.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko hizkuntza-eskakizunen erregistroan dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko titular gisa inskribatuta dauden hautagaiek ez dute ezagutza horiek alegatu beharrik izango, betiere egiaztapen hori eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenagokoa bada.

Era berean, euskararen ezagutzari buruzko tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeari buruzko araudiaren arabera, euskara jakitea egiaztatu beharko dute ordenamendu juridikoak IVAPek emandako 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunekiko baliokidetasuna ematen dien titulu edo ziurtagiriren bat dutenek.

Hori guztia, baldin eta titulua edo ziurtagiria hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean alegatzen bada eta baliokidetasuna deialdi honetan baliatu nahi den titulua edo ziurtagiria eskabideak aurkezteko epea itxi baino lehen lortu bada.

HAEEK emandako hizkuntza-eskakizunen titulu edo ziurtagiri baliokide bat egiaztatzeko:

a) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikitako irakasleen hizkuntza-eskakizuna, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskara-gaitasunaren ziurtagiria, Osakidetza eremuko hizkuntza-eskakizuna, Ertzaintza eremuko hizkuntza-eskakizuna edo helduei euskara irakasteko oinarritzko curriculumak ezartzen dituen euskararen ezagutza-mailak egiaztatzeko Kultura Sailak emandako ziurtagiria alegatuz gero, izangaiek honako aukera hauek izango dituzte:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari berariazko baimena ematea dagozkion erre-gistroetan sartzeko, egindako alegazioa zehatza dela egiaztatzeko eta hautaketa-prozesuan dagozkion titulua edo ziurtagiria aurkeztetik salbuetsita geratzeko.

- Baimen hori berariaz ez ematea, eta alegatutako titulua edo ziurtagiria duela egiaztatzea horretarako ezartzen den epean.

b) Aurreko a) idatz-zatian adierazitakoez bestelako titulu edo ziurtagiriren bat alegatuz gero, dagozkion titulua edo ziurtagiria dutela egiaztatu beharko dute, horretarako ezartzen den epean.

Lehiaketa-fasea:

Oposizio-fasea gainditzen duten izangaiak lehiaketa-fasean sartuko dira.

Epaimahaiak merezimendu hauek baloratuko ditu, betiere eskabidean alegatu eta behar bezala egiaztatu badira.

Prestakuntza:

Beherago adierazitako arloetako prestakuntza-ikastaro bakoitzeko, 20 orduetik gorako irau-penarekin, 0,1 puntu ikastaro bakoitzeko, eta gehienez 2 puntu.

- Jendearentzako arreta.
- Administrazio laguntzailea.
- Ikus-entzunezko baliabideetako oinarritzko prestakuntza.

Lan-esperientzia:

Lehiatzen denaren antzeko lanpostu batean egindako zerbitzuak: 0,15 puntu hilabeteko, gehienez 2 puntu.

8. Gainditu dutenen zerrenda, dokumentuen aurkezpena eta kontratazioa

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, ez da aplikatuko artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, kiroldegiko langileen azpieskalan ez baitago emakumeen azpiordezkariarik.

Berdinketa gertatuz gero, honela ebatziko da:

1. Lan-esperientzia puntuaziorik handiena duen hautagaiaren alde, bigarrenik, prestakuntza puntuaziorik handiena duenak, eta azkenik, zozketa bidez, puntuazio bera duten izangaien artean.

2. Hautaketa-prozesuko ataletako kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak lan-poltsa handitzeko sailkapen-proposamena edo hurrenkera aurkeztuko dio Udaleko Gobernu Batzordeari, honek lan-poltsa puntuazio-ordenaren arabera erabakitzea jotzeko erabakia har dezan. Proposamenaren, ariketa baztertzailak gainditu dituzten izangai guztiak agertuko dira, puntuazioaren arabera ordenatuta.

3. Lan-poltsa handitzeko hautagaiak kontratatu edo izendatu ahala, deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko eskatuko zaie.

4. Agiriak aurkezten ez badituzte, edo oinarrietan eskatzen den baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, lan-poltsan sartzeari utziko diote eta jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira.

9. Gorabeherak

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesua behar bezala egiteko beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian.

Interesdunek deialdia, oinarriak eta horien ondoriozko administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Oinarri hauetan aurreikusten ez denerako, Estatuko Administrazioaren zerbitzura langileak sartzeko Erregelamendu Orokorra onartzen duen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean, Enplegu Publikoaren Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legean eta horiekin bat datozen xedapenetan xedatutakoa aplikatuko da.

10. Datu pertsonalen babesa

1. Hautaketa-prozesuan bildutako datu pertsonalak "hautaketa-prozesuak" izeneko datu pertsonalen fitxategi automatizatuan sartuko dira. Fitxategi horren helburua da Alegria-Dulantziko Udalaren aldi baterako zerbitzuak emateko eskaerei erantzuteko langileak hautatzeko prozesuen kudeaketa eta jarraipena egitea, bai eta eskatzaileei horien garapenaren berri ematea ere.

Alegria-Dulantziko Udala da fitxategi honen arduraduna, eta datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, aurka egiteko eta datuak ezerezteko eskubideak Alkatetzan gauzatuko dira (Herriko plaza 1, 01240 Alegria-Dulantzi).

2. Hautaketa-prozesuan emandako datuak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei laga dakizkieke, hala eskatzen badute. Lagapen hori titular diren datu pertsonalei dagokienez egin nahi duten hautagaiek berariaz onartu beharko dute.

11. Lan-poltsaren baldintzak

Lan-poltsaren kontzeptua:

Lan-poltsaren zabaltze hori da horretarako deitutako hautaketa-proba gainditzen duten pertsonen zerrenda, eta aurreko lan-poltsan sartuko dira, puntuazioaren arabera.

Lan-poltsa erabiltzea:

1) Aldi baterako enplegu-programetarako balioko du.

2) Lan-kontratuko langileen lanpostu hutsak, oporrak eta bajak betetzeko balioko du.

Bidezkoa izango da aldi baterako lan-kontratuko langileak izendatzeko erabiltzea, aldi baterako programak gauzatzeko. Izendapenean programaren aurreikusitako amaiera-data zehaztu beharko da, bai eta programa amaitzeko inguruabarrak eta izendapena beharrezkoa egiten duten beharrak ere.

Lan-poltsako kide bat egon daitekeen egoerak.

1. Eskuragarri: ez dago Alegria-Dulantziko Udalean zerbitzurik ematen.

2. Lanean: Alegria-Dulantziko Udalaren eremuan zerbitzuak ematen ari da. Egoera horretan dauden langileak prestasun-egoerara igaroko dira, eta, ondorioz, lan-eskaintzak jaso ahal izango dituzte zerbitzu-prestazioa amaitzean.

3. Aldi baterako baja: honako hauek igaroko dira egoera horretara, idatziz eskatu ondoren:

- Aldi baterako ezintasun-egoeran dagoela edo amatasun-, aitatasun- edo familia-kontziliazioko lizentzian dagoela egiaztatzen badu.

- Alegria Dulantziko udaletxetik kanpo lan egiten ari bada, 15 eguneko epean justifikatu ondoren.

- Behar bezala justifikatutako arrazoiak alegatzea, eta Alkatetzari dagokio horiek baloratzea.

Aldi baterako baja eragin zuen arrazoa amaitu ondoren, interesdunak idatziz jakinarazi beharko dio Alegria-Dulantziko Udalari, 10 eguneko epean, justifikazio-dokumentazioarekin batera.

4. Behin betiko baja: honako hauek igaroko dira egoera horretara:

- Beren borondatez eskatzen badute.

- Alegria-Dulantziko Udalarekin duten lan-harremanean baja ematea borondatez.

- Ez aurkeztea 15 eguneko epean aldi baterako baja-egoerara igarotzea eragin duen arrazoa egiaztatzen duen dokumentazioa, eta ez egiaztatzea epe berean aldi baterako baja-egoera amaitu dela.

- Helbide-aldaketaren edo telefono-aldaketaren berri ez emateagatik, ezin lokalizatuzko egoeran alta ematen zaienak eta egoera horretan hiru hilabete baino gehiago ematen dutenak.

- Eskaintako lana onartzen ez badute edo behin onartuta, izendapenerako eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen ez badituzte.

- Eskaintzen zaion beste batek lana onartzea, egiten ari zen lana 15 egun baino gutxiagokoa bada eta eskaintza berria 3 hilabete baino gehiagokoa bada izan ezik.

Nolanahi ere, behin betiko baja lan-poltsan bakarrik emango da.

5. Lokalizatu ezina: langileen zerbitzuak ofizioz emango die alta egoera horretan, helbide-aldaketa edo telefono-aldaketa jakinarazi ez dutelako, telegramei edo, hala badagokio, egiten zaizkien telefono-deiei erantzuten ez dietenei. Egoera horretan ez da lan-eskaintzarik egingo.

Zehapen-prozedura:

Euskal Funtzio Publikoaren Legean larritzat edo oso larritzat tipifikatutako hutsegiteak egi-teagatik, funtzionarioak edo lan-kontratuko langileak dagokien lan-poltsatik kanpo uzteko edo behin betiko baja emateko eskatu ahal izango du alkateak.

Zehapen-prozedura horretan, interesdunaren eskubideak bermatuko dira, eta, nolanahi ere, entzunaldi-izapidea emango zaio interesdunari, eta langileen ordezkariari entzungo zaie.

Deitzeko irizpideak:

a) Deialdia lan-poltsako hautaketa-prozesuan zehaztutako ordenaren arabera egingo da.

b) Deitutakoak 24 orduko epean eskaintzen zaion lana onartzen ez badu, lan-poltsan behin betiko baja emango zaio, Alkatetzak behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Salbuespena lan-poltsarako dei-ordenari:

Pertsona bat lanpostu jakin batean lanean egon bada eta 4 hilabete igaro baino lehen lanpostu hori betetzeko beharra ikusten bada, pertsona bera izendatu ahal izango da, betiere lan-poltsan prest badago.

Kontratuen baldintzak:

Hautagai guztiek probaldia gainditu beharko dute, kontratuaren iraupenaren arabera, eta gehienez 15 eguneko izango da.

Probaldia amaitutakoan, zerbitzuko arduradunak eta langileen buruak txostena egingo du, eta epaimahaiak ebaluatuko du; horren ondorioz, lan-poltsatik kanpo gera daiteke.

Inola ere ezin izango da lan-kontratuko langile finko izan oinarri hauetan ezarritako hautake-ta-irizpideak aplikatuta.

Lan-poltsaren indarraldia:

Lan-poltsaren indarraldia izango da.

Alegria-Dulantzin, 2025eko azaroaren 5ean

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA

I. ERANSKINA **Eskabide-eredua**

UDAL ERAIKIN ETA INSTALAZIOETAKO ARDURADUNAK ALDI BATERAKO
KONTRATATZEKO LAN-POLTSA BAT HANDITZEKO PROBETAN ONARTZEKO ESKAERA

IZENA.....

1. ABIZENA.....

2. ABIZENA.....

JAIOTEGUNA.....JAIOTERRIA.....PROBINTZIA.....,
ADINEZ NAGUSIA,NAN ZENBAKIA DUENA, TELEFONOA.....
HELBIDEA KALEA.....HERRIA.....PROBINTZIA.....
POSTA-KODEA

Agertu da, eta ondoen egokitzen den moduan, esaten du:

Udal eraikin eta instalazioen arduradunak aldi baterako kontratatzeke lan-poltsa oposizio bidez zabaltzeko deialdian onartua izateko eskatzen duena.

Karguaren zereginak betetzeko gaitasun funtzionala duela.

Ez duela indarreko xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez dutela diziplina-espediente bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik kendu, eta ez dutela eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabe utzi.

Deialdiaren 2. oinarrian adierazitako titulazioa duela, eta eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkion baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

☐ Erantsita doa NANaren fotokopia.

☐ Honekin batera doakizu euskarako 2. HEren egiaztagiraren kopia.

☐ Lehiaketa-faseari buruzko dokumentazio hau erantsi dut:

.....
.....

ESKATZEN DUT

Dagozkion hautaprobak egiteko onartzen naute.

.....(e)n,.....(e)ko.....aren.....(e)(a)n.

(sinadura)